

11/2016 FORU DEKRETUA, maiatzaren 17koa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru dekretua eta beronek onartzen duen erregelamendu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaera zerrendatu egiten dira foru dekretuak onartutako erregelamenduaren jatorrizko zenbait artikulutan aldaketak sartu dituzten xedapenak.

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA	4
ESTABLEZIMENDU IRAUNKOR BIDEZ LORTUTAKO ERRENTAK	4
1. artikulua. Establezimendu iraunkorari atxikitako ondare elementuak	4
2. artikulua. Establezimendu iraunkor bat baino gehiago izatea	4
3. artikulua. Establezimendu iraunkorari egozgarri zaizkion zuzendaritza gastuen eta gastu orokorren balorazioa	4
4. artikulua. Zenbait establezimendu iraunkorrek tributatzeko aukera	5
II. KAPITULUA	5
ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK	5
5. artikulua. Jarduera edo ustiapen ekonomikoen zerga oinarriaren zehaztapena	5
6. artikulua. Betebehar formalak	6
7. artikulua. Zergaren autolikidazioa Espainian establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak direla eta	6
III. KAPITULUA	7
ENTITATE EZ-EGOILIARREN ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO KARGA BEREZIA	7
8. artikulua. Entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia	7
IV. KAPITULUA	8
EUROPAR BATASUNEKO ESTATU KIDEETAKO EGOILIARRAK DIREN ZERGADUNENTZAKO AUKEKAK ARAUBIDEA	8
9. artikulua. Aplikazio eremua	8
10. artikulua. Araubidearen edukia	9
11. artikulua. Prozedura	10
V. KAPITULUA	11
KONTURAKO ORDAINKETAK	11
1. sekzioa. Establezimendu iraunkor bidez lortutako errentak	11
12. artikulua. Establezimendu iraunkorren konturako ordainketak	11
2. sekzioa. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak	11
13. artikulua. Atxikipenak edo konturako sarrerak egiteko betebeharrak	11
14. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko beharrendaren salbuespenak	12
15. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egitea behartuta dauden subjektuak	13
16. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharraren sorrera	13
17. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharraren kalkulurako oinarria	14
18. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera, ondasun higiezinak eskuratzen direnean	15
19. artikulua. Atxikitzailearen eta kontura sartzera behartutakoaren betebeharrak	15
20. artikulua. Itzulketak	16
21. artikulua. Lanaren errenten gaineko atxikipena egiteko betebeharrak, egoitza aldatzen denean	17
3. sekzioa. Errenta esleipenaren araubideko entitateak	18
22. artikulua. Ordainketa zatikatuak egiteko betebeharrak	18
23. artikulua. Itzulketa, zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen onuragarriago bat alegatuz	18

Xedapen gehigarri lehena. Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak mugaz gaindi merkaturatzea.....	18
Bigarren xedapen gehigarria. Itzulketa eskaera, ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik.....	19
Hirugarren xedapen gehigarria. Pentsio funtsek eta inbertsio kolektiboko erakundeek egoitza frogatzea salbuespen jakin batzuk aplikatzearen ondorioetarako.	19
Laugarren xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak.....	21

2014. urtean, onartu eta indarrean jarri zen abenduaren 10eko 16/2014 Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena, hain zuzen ere, zerga hori araututako apirilaren 26ko 2/1999 Foru Araua ordeztu zuena.

Ordezkapen horren arrazoi nagusia izan da 2014an pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erregulazioari buruzko foru arauak onartzea. Izan ere, haien edukietan oso aldaketa handiak egin ziren.

Ordezkapen horren ondorioz, berrikusi beharrekoak dira 1999ko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak, aipatutako azken foru araua garatzen duenak, jasotzen dituen edukiak. Izan ere, berrikuspen horren helburua da haren edukiak arau berrian jasotako aldaketetara egokitzea eta, era berean, foru arau berrian eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erregulazio berrian jasotako artikulua eta xedapenetara egiten diren igorpenak doitzea.

Erregelamendu berrian aurrekoaren egitura gehiena gordetzen da, hau da, 1999ko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduarena. Halere, berrikuntza batzuk 16/2014 Foru Arau berrian ezarrita egoteagatik jaso behar izan dira.

Hori horrela, Erregelamenduak bost kapitulu jasotzen ditu, gai hauei buruzko alderdiak garatzen dituztenak: lehena, establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrek lortutako errentei buruzkoa; bigarrena, establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarrek lortutako errentei buruzkoa; hirugarrena, entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga bereziaren garapenari buruzkoa; laugarrena, Europar Batasuneko estatu baten zergadun egoiliarrentzako aukerako araubidearen garapenari buruzkoa; eta, bosgarrena, establezimendu iraunkorren bidez nahiz establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten konturako ordainketak luze garatzen dituen eta, gainera, errenta esleipenaren araubideko entitateen berezitasunen bat sartzen duena.

Azkenik, berrikuntza moduan sartzen da Europar Batasuneko estatu batean egoiliar den zergadun batek edo benetako informazio trukea duen Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean egoiliar den zergadun batek Gipuzkoan izandako ohiko etxebizitzaren eskualdaketagatik lortu duen ondare irabaziari dagokionez ordaindutako zerga zorra osorik edo partzialki itzultzeko modua, betiere xedapen horretan jartzen diren baldintzetan.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholku Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Onartzea Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua.

Onartu egiten da Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ez-egoiliaren Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 10eko 16/2014 Foru Araua garatze aldera eta foru dekretu honen eranskin moduan sartzen da.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA. Araudiari buruzko aipamenak.

Ulertuko da Gipuzkoako lurralde historikoko zerga araudian Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretuari buruz egiten diren aipamen guztiak foru dekretu honen bidez onartzen den erregelamenduko xedapenei buruzkoak direla.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA.

1. Foru dekretu hau indarrean jartzean, indargabetuta geldituko da 1999ko maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.
2. Era berean, indargabetuta gelditzen dira foru dekretu honetan eta horren eranskinean sartutako erregelamenduan jasotakoari aurre egin edo kontraesanean jartzen duten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

AMAIERAKO XEDAPENAK.

Lehena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau «Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ahal izango ditu foru dekretu hau eta haren eranskinean jasotako erregelamendua garatu eta aplikatzeko.

ERANSKINA

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua

I. kapitulua

Establezimendu iraunkor bidez lortutako errentak

1 artikulua. Establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare elementuak.

Entitate baten funts propioetan parte hartzea adierazten duten eta establezimendu iraunkorraren xedea den jardueraren garapenari funtzionalki lotuta dauden aktiboak establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare elementutzat joko dira soilik establezimendu hori Merkataritzako Erregistroan inskribatutako sukurtsala denean eta honako beharkizun hauek betetzen direnean:

a) Aktibo horiek establezimendu iraunkorraren kontabilitateko egoera orrietan islatuta egotea.

b) Baldin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 85. artikuluan jasotakoaren arabera entitate nagusitzat hartu daitezkeen establezimendu iraunkorrak badira, establezimendu iraunkor horrek bitarteko materialak eta giza baliabideak antolatuta izatea, partaidetza haiek zuzendu eta kudeatzeko.

2. artikulua. Establezimendu iraunkor bat baino gehiago izatea.

Zergadun batek hainbat jarduera zentro dituenetan eta, zergaren foru arauak 17. artikulua 1. apartatuan jasotakoaren arabera, horiek establezimendu iraunkor desberdinak direnean, horietako bakoitzari izendapen desberdin bat jarri beharko dio.

Zergadun pertsona juridikoak direnean, gainera, identifikazio fiskaleko zenbaki desberdin bat lortu beharko dute establezimendu iraunkor bakoitzerako.

3. artikulua. Establezimendu iraunkorrari egozgarri zaizkion zuzendaritza gastuen eta gastu orokorren balorazioa.

1. Establezimendu iraunkor bidez aritzen diren zergadunek proposamenak aurkeztu ahal izango dizkiote Zerga Administrazioari, establezimendu iraunkorrari dagokion eta kengarria den zuzendaritza gastuen eta gastu orokorren zatia baloratu dezan, haren zerga oinarria zehazte aldera, zergaren foru arauak 18.1 artikulua b) letran jasotakoari jarraituz. Proposamen horien oinarria xedapen horretan jasotako egozpen irizpideen aplikazioa izan beharko da.

2. Eskerak tramitatu eta ebazteko, 2015eko ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko

II. tituluaren III. kapituluko laugarren sekzioaren lehen azpisekzioan jasotako prozedura erabiliko da, ondorengo apartatua aipatutako berezitasunarekin.

3. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 43. artikulua 3. eta 4. apartatuetan jasotako dokumentazioaz gain, zergadunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute eskaerarekin eta balorazio proposamenarekin batera, 2015eko ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 24.2 artikuluan jasotakoari dagokionez:

a) Proposamenean jasotako zuzendaritza gastuen eta administrazio gastu orokorren deskripzioa.

b) Establezimendu iraunkorrari dagozkion gastuen identifikazioa, eta zergaren foru arauaren 18.1 artikulua b) letran adierazitakoen artetik aplikatutako banaketa irizpide eta moduluak.

c) Beste zerga administrazio batzuek onetsitako proposamenak edo beste haiek tramitatzen ari diren proposamenak egotea.

4. artikulua. Zenbait establezimendu iraunkorrek tributatzeko aukera.

Zergadunek zergaren foru arauaren 18.5 artikulua b) letran ezarritakoaren arabera establezimendu iraunkorren araubide orokorra aplikatzea hautatzen badute, hautu horrek establezimendu iraunkortzat jotzen den eraikuntzak, instalazioak, muntaketak edo jardunak irauten duen denbora osoan sortuko ditu ondorioak.

II. kapitulua

Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak

5. artikulua. Jarduera edo ustiapen ekonomikoen zerga oinarriaren zehaztapena.

1. Jarduera edo ustiapen ekonomikoa establezimendu iraunkorrik gabe egiten denean, sarrera osoetatik jarraian adierazten diren partidak kendu ahal izango dira, zerga oinarria zehazteko:

a) Zuzenean jarduera edo ustiapen ekonomikoetan aritzeko Espainiara lekualdatzen edo Espainiako lurraldean kontratatzen diren langileen soldatak, alokairuak eta gizarte kargak; nolana ere, behar bezala frogatu edo bermatu beharko da dagokion zerga ordaindu dela edo ordaindutako lan etekinei dagozkien konturako ordainketak egin direla.

b) Espainiako lurraldean egiten diren obra edo lanei behin betiko atxikitzeoak diren materialen hornikuntza. Materialak ez direnean Espainiako lurraldean eskuratzen, arantzel eskubideak edo balio erantsiaren gaineko zerga likidatzeko aitortzen den kopurua kendu ahal izango da.

c) Jarduera edo ustiapen ekonomikoan zehar Espainiako lurraldean kontsumitzen diren hornigaiak. Horri dagokionez, biltegiatzekoak ez diren hornidurak soilik hartuko dira hornigaitzat.

2. Aurreko apartatuko b) eta c) letretan aipatutako partidak sarreretatik kendu ahal izango dira, baina soilik gastuak benetan egin direla frogatzen duten

fakturak enpresarien edo profesionalen fakturazio betebeharrak erregulatzen dituzten arauetan eskatzen diren beharkizun formalak betez egiten direnean.

6. artikulua. Betebehar formalak.

1. Zergaren foru arauaren 24. artikuluko 2. apartatuan aipatutako errentak eskuratzen dituzten zergadunek honako erregistro liburu hauek egin beharko dituzte.

a) Sarreraren erregistro liburua.

b) Gastuen erregistro liburua.

2. Halaber, aurreko apartatuan aipatu diren zergadunek gorde egin beharko dituzte haiek —Fakturazio betebeharren Erregelamenduari buruzko otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera— ematen dituzten fakturak, eta daten arabera zenbakiekin antolatuz gorde beharko dituzte; jasotzen dituzten fakturak eta bestelako frogagiriak ere gorde beharko dituzte.

3. Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari artikuluko honek aipatzen dituen erregistro liburuak nola egin behar diren zehazteko.

7. artikulua. Zergaren autolikidazioa Espainian establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak direla eta.

1. Zergadun batek, establezimendu iraunkorrik gabe, zergari lortutako errentak eskuratzen baditu, zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko du, eta zerga zorra zehaztu eta ordaindu beharko du.

Zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena Espainiarekin sinatua duen herrialderen bateko egoiliar den zergadun batek hitzarmenari helden badi, aipatutako hitzarmenean zergapetzeaz ezarritako muga edo bertan ezarritako salbuespenak aplikatuko ditu zuzenean autolikidazioan, zerga zorra zehazteko. Horretarako, egoitza ziurtagiri bat erantsi beharko dio autolikidazioari, behar den zerga agintaritzak emana, edo, bestela, hitzarmenetako garapen aginduetan ezarritako formularioa.

2. Zergaren foru arauaren 9. artikuluan definitutako erantzule solidarioek autolikidazioa egin dezakete, eta, era berean, zerga zorra ordain dezakete.

3. Zerga honen zergadunei ez zaie zenbait errentaren gaineko autolikidazioa aurkezteko betebeharrak ezarriko, baldin eta errenta horiek direla-eta zergaren atxikipena edo konturako sarrera egin badute, zergaren foru arauaren 31. artikuluan zehazten denarekin bat. Dena dela, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako inbertsio funtsetako partaidetzen itzulketak eragindako ondare irabaziak badaude, autolikidazioa aurkeztu beharko dute, betiere egindako atxikipena txikiagoa denean zergaren foru arauaren 25. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulaturako zerga kuota baino.

Eta errentak direla-eta atxikipena edo konturako sarrera egin beharra izanik ere, ez dute autolikidazioa aurkeztu beharko, baldin eta errenta horiek salbuetsita badaude bai zergaren foru arauaren 14. artikuluan edo bai zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen aplikagarri batean ezarritakoaren arabera.

4. Zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko dute, artikuluko honetako aurreko apartatueta ezarritako moduan, erregelamendu honen 14. artikuluko 3. apartatuarekin bat etorritik atxikipena edo konturako sarrera egin beharretik salbuetsita dauden zergapeko errentak eskuratzen dituzten zergadunek.

III. kapitulua

Entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia

8. artikulua. Entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia.

1. Paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliar diren entitateek, ondasun higiezinaren jabe badira nahiz horien gaineko gozamen eskubide errealek badituzte Gipuzkoan, edozein titulu dela bide, bada, orduan, entitateak zergari lotuta egongo dira, urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko den karga berezi baten bidez. Karga hori sortzapenaren ondorengo urtarrean autolikidatu eta ordaindu behar da.

Aurreko parrafoan aipatutako entitateen batek Gipuzkoan ondasun higiezin bat baino gehiago badu —edozein titulu dela bide— edo ondasun higiezin bat baino gehiagoren gaineko gozamen eskubide errealek baditu, autolikidazio bakarra aurkeztuko du karga berezi horrengatik, eta, harekin batera, zerrenda bat, non ondasun higiezinak bereizita ageri diren. Horretarako, zenbaki finko berezia dutenak joko dira higiezintzat.

2. Zergaren foru arauaren 33.5 artikuluko b) letran xedatutakoak ondoreak izan ditzan, jarraian adieraziko diren kasuetan ulertuko da badela ustiapen ekonomiko bat higiezinaren edukitza edo errentamendu soiletik bereiz daitekeena:

a) Jabetzan edo edukitzan entitate ez-egoiliarrena den higiezinaren edo higiezinaren benetako balioa edo hark gozamen eskubide errealek harturik dituen higiezinaren edo higiezinaren benetako balioa ez izatea bost aldiz handiagoa ustiapen ekonomiko bati atxikitako ondare elementuen benetako balioa baino. Horretarako, ustiapenaren xederako zati batean bakarrik erabiltzen diren higiezinak direnean, ustiapenean benetan erabiltzen den higiezin zatia hartuko da kontuan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, ulertu behar bada ez dagoela higiezin osoa hartzen duen ustiapen ekonomiko bereizirik, karga bereziaren zerga oinarria hau bakarrik izango da: edo ustiapen ekonomikoan erabiltzen ez den higiezin zatia dagokion katastro balioaren zatia, edo, halakorik ezean, higiezin zati horri aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergaren ondoretarako aplikatu beharreko xedapenen arabera zehazturiko balioa.

b) Ustiapen ekonomikoaren urteko eragiketa bolumena karga bereziaren zerga oinarria halako lau edo gehiago izatea; zerga oinarria zergaren foru arauaren 33. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

c) Ustiapen ekonomikoaren urteko eragiketa bolumena 600.000 euro edo gehiago izatea.

3. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarriko ditu entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga bereziaren autolikidazioa egiteko erabiliko diren ereduak.

IV. kapitulua

Europar Batasuneko estatu kideetako egoiliarren diren zergadunentzako aukerako araubidea

9. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Kapitulu honetan araututako aukerako araubidea ezartzeko eskatu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituzten zergadunek:

a) Pertsona fisikoak izatea.

b) Egiaztatzea Espainia ez den Europar Batasuneko beste estatu bateko egoiliarra dela.

c) Honako zirkunstantzia hauek egiaztatzea:

1.- Zergaldian Espainiako lurraldean lanaren eta jarduera ekonomikoaren bidez eskuratutako etekinen batura, gutxienez, zergaldian eskuratutako errenta guztien 100eko 75 izatea.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinak Espainian lortutako errenta osoaren zatirik handiena izatea.

3.- Lanarengatik eta jarduera ekonomikoengatik Gipuzkoako lurralde historikoan lortutako etekinen batura handiagoa dela beste bi lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoena baino.

d) Lurralde espainiarrean lortutako errentek, aurreko letran aipatu direnek, zergaldian ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaindu izana.

2. Zergadunak zergaldian lortutako errenta osoa zehazteko, zergaldi horretan lortutako errenta guztiak kontuan hartuko dira, non sortu diren eta ordaintzailearen egoitza non dagoen begiratu gabe.

Aurreko 1. apartatuko c) letrako 1. eta 2. zenbakietan xedatutakoari dagokionez, errentak beren zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, hala jasotzen baitu 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga onartzen duenak eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen dituenak.

Aurreko 1. apartatuko c) letrako 3. zenbakian xedatutakoari dagokionez, errentak beren zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, hala jasotzen baitu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak.

3. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko araudian ezarritako familia unitateen modalitateetako batean sartzen diren zergadunek eskatu ahal izango dute aplika dakiela kapitulu honetan arautzen den aukerako araubidea, araudi horretan jasotako baterako tributaziorako arauak kontuan izanik, baina betiere baldintza hauek betetzen badira:

a)¹ Ezkontideak edo izatezko bikote lagunak eta, egonez gero, familia unitateko gainerako kideek, frogatzea beren egoitza Europar Batasuneko estatu kide batean dagoela.

b) Aurreko 1. apartatuko c) eta d) letretan ezarritako baldintzak betetzea, familia unitateko kide guztiek eskuratutako errenta guztiak kontuan hartuz.

c) Eskabidea familia unitateko kide guztiek egitea, edo, bestela, haien legezko ordezkariak.

4. Kapitulu honetan ezarritako aukerako araubidea aplikatzeko, zergaldia urte naturala izango da. Hala ere, zergaduna abenduaren 31 ez den beste egun batean hiltzen bada, zergaldia heriotza egunean bertan amaituko da.

Urte bakoitzeko abenduaren 31ko egoera kontuan izanik zehaztuko da zeintzuk diren familia unitateko kideak.

Dena den, urtean zehar familia unitateko kideren bat hiltzen bada, familia unitateko gainerako kideak edo kideek baterako tributazioa aukeratu ahal izango dute, eta haien autolikidazioan sartuko dituzte hildakoaren errentak eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian jasotako familia kenkariak aplikatu ahal izango dituzte, hala badagokio.

5. Erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatuta dauden herrialde edo lurraldeetan egoitza duten zergadunei ez zaie inoiz ere aplikatuko aukerako araubidea.

10. artikulua. Araubidearen edukia.

1. Araubidea aplikatu daitekeela egiaztatuz gero, aukerako araubide hori artikulua honetan xedatutakoaren arabera aplikatuko da.

2. Zerga Administrazioak zehaztuko du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zer zenbateko dagokion zergadunak aukerako araubidearen aplikazioa eskatu duen zergaldiari.

Kalkulua egiteko, irizpide hauek erabiliko dira:

a) Kontuan hartuko dira zergadunak zergaldian lortu dituen errenta guztiak eta behar bezala frogatu dituen zirkunstantzia pertsonal zein familiarrak.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 75. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

c) Zerga Administrazioak batez besteko karga tasa finkatuko du, eta tasa hori honako zatidura hau bider 100 eginez sortuko da:

—Zenbakitzailea honela kalkulatu da: kuota osoa ken Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren VII. tituluan ezarritako kenkariak, 91. artikuluetakoa izan ezik.

¹ Letra hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).

—Izendatzailea oinarri likidagarria izango da.

Batez besteko karga tasa bi zenbaki hamartar jarritz adieraziko da.

d) Horrela lortutako batez besteko karga tasa zati honi aplikatuko zaio, alegia, aukerako araubidea aplikagarri zaion zergadunak lurralde espainiarrean zergaldian lortutako errentek oinarri likidagarrian duten zatia.

3. Aurreko apartatuan deskribatutako eragiketen emaitza txikiagoa bada zergadunak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kontzeptupean lurralde espainiarrean lortutako errentengatik, konturako ordainketak barne, zergaldian ordaindutako kopuruen zenbateko osoa baino, Zerga Administrazioak soberakina itzuliko du, behar diren egiaztapenak egin ondoren, ondorengo artikuluan jasotako prozedurari jarraituz.

11. artikulua. Prozedura.

1. Zergadun batek erregelamendu honetako 9. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baditu, kapitulu honetan araututako aukerako araubidea ezar dakiola eskatu ahal izango du.

Zergaduna hilez gero, kausatzailearen ondorengoek aurkeztu ahal izango dute eskabidea.

2. Zerga Administrazioak zergadunari eskatu diezaioke beharrezkotzat jotzen dituen frogagiri guztiak aurkez ditzala aukerako araubidea aplikatzeko baldintzak betetzen direla frogatzearen.

Behar izanez gero, zergadunari eskatuko dio hilabeteko epean beharrezko dokumentazioa aurkez dezala, eta, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

Araubidearen aplikazioa edo kontuan hartu beharreko zirkunstantzia pertsonal edo familiarak frogatzeko aurkeztutako agiriak Euskal Autonomia Erkidegoarekiko ofiziala ez den hizkuntza batean idatzita daudenean, itzulpenarekin batera aurkeztuko dira.

3. Eskaera ebazteko erabakia eman aurretik, espediente zergadunari edo, hala bada, haren ordezkariari erakutsiko zaio, egoki deritzen alegazioak egin ditzan.

4. Zerga Administrazioak sei hileko epea izango du ebazpena emateko, eskabidea aurkezte denetik aurrera. Nolanahi ere, eten justifikatua duten aldiak eta Zerga Administrazioari egozgarriak ez zaizkion arrazoiek eragindako atzerapenak gertatzen badira, aldi horiek ez dira konputatuko prozedura ebazteko epea kalkulatzeko, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hori garatzeko arauetan ezarritakoarekin bat.

Epe hori amaitutakoan, eskaera ezetsitzat jo ahal izango da, ustezko ebazpenaren aurka errekursoa edo erreklamazioa jartzeko, edo berariazko ebazpenaren zain gelditzeko.

Eskaera isiltasun bidez ezesten den kasuetan, ondoren ematen den berariazko ebazpenak ez du inolako loturarik izango isiltasunaren zentzuarekin.

5. Ebazpenean jaso egin behar dira aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera egindako kalkuluak. Hala denean, Zerga Administrazioak itzuli egingo du erregelamendu honetako 10. artikuluko 3. apartatuan aipaturiko soberakina;

nolanahi ere, ondoren, beharrezkoa bada, likidazioak egin ahal izango ditu, behin-behinekoak zein behin betikoak.

Soberakina aurreko 4. apartatuan jasotako epearen barruan itzuliko da. Epe hori igaro bada baina ez bada itzulketaren ordainketa agindu eta ez bada gertatzen eten justifikatua duen aldirik eta zerga Administrazioari egozgarriak ez zaizkion arrazoiek eragindako atzerapenik, itzultzeko dagoen zenbatekoari aplikatuko zaio 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrari buruzkoak, 26. artikulua 6. apartatuan aipatutako berandutze interesa, epe hori amaitzen den egunetik itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzen duen erabakia hartu bitartean, zergadunak hori erreklamatu beharrik gabe.

6. Artikulu honetan aipatutako itzulketak ordaintzeko modua eta prozedura erregelamendu honek 20. artikuluan xedatutakoaren arabera egin beharreko itzulketetarako ezarritakoak izango dira.

V. kapitula

Konturako ordainketak

1. sekzioa. Establezimendu iraunkor bidez lortutako errentak

12. artikulua. Establezimendu iraunkorren konturako ordainketak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari lotutako errentak, establezimendu iraunkor bitartez lortzen direnean, atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta egongo dira, eta establezimendu iraunkor horiek behartuta egongo dira konturako ordainketak egitera, gipuzkoako__sozietateen gaineko zergaren araudian zerga horren zergadunentzat ezarritako kasu eta baldintza berberetan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatu behar ez den kasuez gainera, honako kasu honetan ere ez da egongo atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharririk. Espainiako lurraldean egoitzarik ez duen finantza erakunde baten establezimendu iraunkorren sarrera diren interes eta komisioen kasuan, baldin eta establezimendu horrek Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuko 50. artikulua 3. zenbakian aipatutako entitateen berezko jarduerak egiten baditu eta lortutako interes eta komisioak establezimendu iraunkorrak emandako maileguen ondoriozkoak badira. Dena dela, aurrekoari dagokionez, salbuespen dira 3. zenbaki horretako bigarren paragrafoan aipatzen diren errentak.

2. sekzioa. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak

13. artikulua. Atxikipenak edo konturako sarrerak egiteko betebeharra.

1. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipena egin beharko da establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunek jaso dituzten eta zerga horri lotuta dauden errentengatik, zergaren foru arauaren 31. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. Aurreko apartatuan aipatu diren errentak gauza bidez ordaindu edo abonatzen direnean, jasotzaileak konturako sarrera egin beharko du ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari loturiko errentei dagokienez.

14. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko beharraren salbuespenak.

1. Ez da atxikipenik edo konturako sarrerarik egiteko betebeharririk izango, zergaren foru arauak 31. artikuluan 4. apartatuan aipatutako kasuetan.

2. Zergaren foru arauak 31. artikuluan 4. apartatuan xedatutakoa aplikatzeko, honelaxe frogatuko da zerga ordaindu dela edo, hala badagokio, salbuespena bidezkoa dela:

a) Ordainketaren kasuan, ordaindutako errentei dagokien zergaren autolikidazioa, zergadunak edo haren ordezkariak aurkeztua.

b) Salbuespenak: beren aplikazioa bidezkoa dela frogatzen duten zirkunstantziak bete izanaren frogagiriaren bitartez; nolana ere, zergaren foru arauaren 31. artikuluan 5. apartatuan jasota dagoen aitortzeko betebeharra ere izango da.

Atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenak, aurreko zirkunstantzietako bat gertatu dela frogatu duela uste izanik, atxikipena edo konturako sarrera egiten ez badu eta geroago ezartzen bada salbuespena bidegabea izan dela edo zerga zorra ez dela ordaindu, egin gabeko atxikipenagatik edo konturako sarreragatik atxikitzaile gisa dagozkion erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

3. Zergaren foru arauak 31.4 artikuluan e) letran jasotakoaren ondorioetarako, ezin izango da atxikipenik edo konturako sarrerarik egin honako errenta hauek direla eta:

a) Ondare irabaziak.

Aurrekoan xedatutakoa xedatuta ere, atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra egongo da honako hauei dagokienez:

1.- Jokoetan, lehiaketetan, errifetan edo ausazko konbinazioetan parte hartzearen ondorioz lortutako sariak, zenbait ondasun, produktu edo zerbitzuren eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon edo ez.

2.- 18. artikuluan aipatutako Gipuzkoako ondasun higiezinaren eskualdaketa.

3.- Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik sortutako errentak. Kanpoan gelditzen dira 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onartutako Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduak 79. artikuluan araututako funts eta sozietateetako partaidetza eta akzioetatik datozenak.

b) 2007ko martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaz onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 75.3 artikuluko c), e), f) eta h) letratan aipatutako errentak; b) letran aipatutako errenta batzuk aurrean adierazitakotik salbuetsita daude, hain zuzen ere erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeen bitartez lortutako errentak.

Aurretik jasotakoa jasota ere, atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra egongo da, baldin eta ekarpenak itzuliz eta akzioen jaulkipen prima banatuz egiten den kapital sozialaren murriztapen bat gertatzen bada 2007ko martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona

Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 75.3.h) artikuluaaren bigarren paragrafoan zehaztutako kasuetan.

4. Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari balore negoziagarrien jaulkipenen emaitzaren gaineko atxikipena gauzatzeko prozedura ezartzeko, kasu bakoitzean dagokion tasan, edota atxikipenen salbuespena ezartzeko.

15. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egitera behartuta dauden subjektuak.

1. Zergaren foru arauaren 31. artikuluko 1. apartatuan aipatutako subjektuek egin beharko dituzte atxikipenak edo konturako sarrerak.

2. 2007ko 439/2007 Errege Dekretuaz onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 76.2 artikuluko b), c) eta d) letretan ezarritakoaren arabera atxikipena edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden subjektuek atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dute kasu hauetan: aktibo finantzarioen gaineko eragiketetan; Estatuaren Zorraren baloreen eskualdaketetan; inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzioen eta partaidetzen eskualdaketetan edo itzulketetan — baita Europar Batasuneko beste estatu kide bateko sozietate kudeatzaile baimenduek Espainian Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen arabera zerbitzuak libre emateko araubidean merkaturatutako akzio edo partaidetzen ondoriozkoetan ere—, eta kapital soziala ekarpenak itzuliz eta akzioen jaulkipen prima banatuz murrizten den kasuetan (halakoak erregelamendu honetako 14. artikuluko 3. apartatuan aipatzen dira).

Nolanahi ere, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzen eskualdaketetan edo itzulketetan, eragiketak erregelamendu honetako lehenengo xedapen gehigarrian aipatzen den mugaz gaindiko merkaturatzearen barruan egiten badira, atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra beti egokituko zaio erakunde horren sozietate kudeatzaileari edo, halakorik ezean, inbertsio sozietateari.

3. Sarien kasuan, sariak ordaintzen dituen pertsona edo entitateak egin beharko du atxikipena edo konturako sarrera.

4. Atxikipena egiteko betebeharra duten subjektuek atxikipen horri dagokion sarrera egiteko betebeharra berenganatuko dute, eta, nahiz eta atxikipena egin ez, beti egin beharko dute sarrera.

Atxikipena eta sarrera zuzenean egingo dira, etekina ordaintzen duen entitatea Gipuzkoako Foru Aldundia denean.

16. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharraren sorrera.

1. Oro har, zerga sortzen den unean sortuko da atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharra, zergaren foru arauaren 27. artikuluan jasotakoaren arabera.

2. Kapital higigarriaren etekinei eta ondare irabaziei dagokienez, 2007ko martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaz onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 94. eta 98. artikuluetan ezarritakoa hartuko da aintzat, hurrenez hurren.

17. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharraren kalkulurako oinarria.

1. Oro har, zergaren foru arauaren 31. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoaren arabera zehaztuko da atxiki beharrekoa kalkulatzeko oinarria.

Horretarako, pertsona fisiko batek 1994ko abenduaren 31ren aurretik ordaindutako primei osorik edo partzialki dagokien kapital geroratu bat jasotzen duenean, aplikatu beharko da, hala badagokio, 2007ko martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaz onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 93. artikulua 5. apartatuan jasotakoa.

2. Atxikipena egin behar denean 14.3.a) artikulua 1. zenbakian aipatzen diren sarien gainean, sariaren zenbatekoa izango da atxikipena kalkulatzeko oinarria.

3. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzioak edo partaidetzak eskualdatzen edo itzultzen direnean, atxikipen oinarria hau izango da: akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketa balioaren eta eskuraketa balioaren arteko diferentzia. Horretarako, zergadunak lehenengo eskuratu zituen baloreak hartuko dira eskualdatu edo itzulitako baloretzat.

Horretarako, inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzioak edo partaidetzak pertsona fisikoek erosiak direnean 1994ko abenduaren 31ren aurretik, aplikatu beharko da, hala badagokio, 2007ko martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaz onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 97. artikulua 1. apartatuan jasotakoa. Dena dela, aurreko paragrafoan baloreen antzintasunari buruz zehazten dena partaideen erregistroan jasota dauden baloreei aplikatuko die itzulketa edo eskualdaketa egiteko erabiltzen den entitate kudeatzaile edo merkaturatzaileak, honako baldintza hauek biak betetzen badira: batetik, Inbertsio kolektiboko erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako inbertsio funtsetako partaidetzen itzulketa bada eta partaidetza horientzat, lege horretako 40. artikuluko 3. apartatua aplikatuz, partaideen erregistro bat baino gehiago badago; bestetik, itzulketa edo eskualdaketa egiten duten partaide horiek, aldi berean, beste erakunde batean erregistratutako partaidetza homogeneoen titularrak izan badira.

Aurreko paragrafoan adierazitako egoera gertatzen denean, partaidea behartuta egongo da haren berri jakinaraztera, idatziz edo itzulketaren helburua den eta atxikipena edo konturako sarrera egin behar duen entitateak jakinarazpena jaso duela egiaztatzen duen beste bide bat erabilita. Entitate horrek gorde egin beharko du jakinarazpen hori, eta Zerga Administrazioarentzat eskuragarri eduki itzulitako partaidetza homogeneoak zergadunaren izenean erregistratuta dituen bitartean, eta, gutxienez ere, preskripzio epeak dirauen bitartean.

4. Errentak gauza bidez ordaindu edo abonatzen direnean, konturako sarrera kalkulatzeko oinarria zehaztuko da, hain zuzen ere, 2007ko martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko VII. tituluko III. kapituluaren ezarritakoarekin bat.

5. Atxikitzeko edo kontura sartzeko betebeharra sortzen bada Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legeak 18.11 artikuluan aipatutakotik eratorritako bigarren doikuntzagatik, atxikipenaren oinarria hitzartutako balioaren eta merkaturako balioaren arteko diferentzia izango da.

18. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera, ondasun higiezinak eskuratzen direnean.

1. Establezimendu iraunkorrik gabe jarduten diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezinak eskualdatzen dituztenean, eskuratzailerak behartuta egongo da beren artean erabakitako kontraprestazioaren 100eko 3 atxikitza eta sartzera, edo konturako sarrera egitera, haiei dagokien ez- egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturako ordainketaren kontzeptuan.

2. Eskuratzailerak ez da atxikitza eta konturako sarrera egitera behartuta egongo, kasu hauetan:

a) Eskualdatzaileak egiaztatzen duenean, Zerga Administrazioaren organo eskudunak emaniko ziurtagiriaren bidez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari edo sozietateen gaineko zergari lotuta dagoela.

b) Lurralde espainiarrean egoiliar diren sozietateen kapitalak eratzean edo gehitzean ondasun higiezinak ematen direnean.

3. Atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenak autolikidazioa aurkeztu eta atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa ordaindu beharko du, eskualdaketa gertatzen denetik hilabeteko epean.

4. Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den zergadunak aitorpena aurkeztu eta, hala badagokio, behin betiko zerga ordaindu beharko du; gainera, kuotan konpentsatuko du eskuratzailerak atxikitakoaren edo kontura egindako sarreraren zenbatekoa, atxikipena ordaintzeko ezarritako epea amaitzen denetik hiru hilabeteko epean.

Behar diren egiaztapenak egin ondoren, ikusten bada egindako atxikipena edo konturako sarrera handiagoa izan dela egin beharrekoa baino, soberakina itzuliko dio Zerga Administrazioak zergadunari.

5. Arestian aipaturiko atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa ordaindu ez bada, eskualdatutako ondasunak erabiliko dira atxikipenaren edo konturako sarreraren eta zerga zorraren artean txikiena den zenbatekoa ordaintzeko; jabetza erregistratzaileak hori guztia agerraraziko du ondasun horien bazterreko orrian egindako ohar batean, eta finka zer kopururi aurre egiteko erabiliko den adieraziko du. Ohar hori, hala badagokio, zorra iraungitzen denean ezeztatuko da edo, bestela, honako hauetako bat aurkezten denean: zorraren ordainketa gutuna edo zor hori loturik ez dagoela edo preskribitu egin duela frogatzen duen administrazio ziurtagiria.

6. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak artikulua honetan xedatutakoa betetzeko erabili beharreko autolikidazio ereduak ezarriko ditu.

19. artikulua. Atxikitzailearen eta kontura sartzera behartutakoaren betebeharrak.

1. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga dela-eta atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenak aurreko lehen hiruhileko naturalean atxikitako eta kontura sartutako zenbatekoen autolikidazioa aurkeztu behar du hiru hilean behin, eta kopuru horiek Foru Ogasunean ordaindu behar ditu.

Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako autolikidazioa eta ordainketa hilean behin egingo da, aurreko lehen hilabetean egindako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzailleak eta kontura sartzera behartutakoak 1992ko abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaz onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 71.3 artikularen 1. zenbakian jasotzen dituen zirkunstantzietan badaude.

Atxikipena eta konturako sarrera egin behar dutenek aitorpen negatiboa aurkeztuko dute zergaren foru arauaren 31. artikuluko 4. apartatuan adierazitako errentak ordaintzen dituztenean, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak hala adierazten duenean izan ezik.

2. Atxikitzailleak eta kontura ordaintzera behartutakoak aurreko lehen urtean egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkeztu beharko dute.

Laburpen horretan, identifikazio datuak ez ezik, atxikipena edo konturako sarrera egin behar dutenek zergari loturik ordaindu dituzten errentak jaso dituztenen zerrenda ere agerrarazi beharko dute; zerrenda horretan agerrarazi beharko dira, halaber, zergaren foru arauaren 31. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoa dela-eta atxikipena egin beharretik salbu geratu diren errentak ordaindu zaizkien izenak ere. Jasotzaileen zerrendan, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak adierazten dituen datuak agertu beharko dira.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak horietan bete beharko dituzte Espainiako lurraldean egoiliarren diren edo Espainiako lurraldean ordezkariak diren entitateek, baldin eta besteren kontura atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak ordaintzen badituzte edo baloreen errenten gordailuzainak badira edo kobrantza kudeatzen badute edo haien kobrantza kudeatzen badute.

3. Atxikitzailleak edo konturako sarrera egin behar duenak egindako atxikipenen edo konturako sarreraren ziurtagiria eman behar dio zergadunari, baita zergadunari dagozkion gainerako datuena ere, baldin eta datu horiek aurreko apartatuan aipatzen den urteko laburpenean sartu behar badira.

Aurreko paragrafoan ezarritako betebeharrak horietan bete beharko dituzte Espainiako lurraldean egoiliarren diren edo Espainiako lurraldean ordezkariak diren entitateek, baldin eta besteren kontura atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak ordaintzen badituzte edo baloreen errenten gordailuzainak badira edo haien kobrantza kudeatzen badute.

4. Ordaintzaileek zergadunei egindako atxikipena edo konturako sarrera jakinarazi behar diete errentak ordaintzen dituzten unean, eta aplikatu dieten portzentajea adierazi.

5. Artikulu honetan aipatutako aitorpenak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezartzen dituen aurkezpen eredu, modu eta epeetan aurkeztuko dira.

20. artikulua. Itzulketak.

1. Atxikipena edo konturako sarrera handiagoa bada zergaren kuota baino, kuota horren gaineko soberakina itzultzeko eskatu ahal izango zaio Zerga Administrazioari.

Horretarako, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak zehazten duen ereduaren autolikidatuko da zerga, eta hark ezartzen dituen moduan eta epeetan aurkeztuko da.

2. Zergaren foru arauaren 3. artikuluan ezarrita dagoenarekin bat etorritik, Zerga Administrazioak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 111. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo ditu itzulketak.

3. Zergadunek ez ezik, erantzule solidarioek eta atxikipena egitera behartuta dauden subjektuek ere itzulketa eskabidea aurkeztu ahal izango dute aitorpenean.

4. Kontura sartutako kopuruak edo jasandako atxikipenak handiagoak badira zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat aplikatzetik datozenak baino, hitzarmena aplikatzeko eskatu ahal izango da, bai eta haren ondorioz egin beharreko itzulketa egiteko ere, lau urteko epean, sarrera egin den egunetik edo aitorpena egin eta atxikipena ordaintzeko epearen amaieratik aurrera. Elkarrekikotasunik eza dagoenean, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak beste epe bat ezarri ahal izango du.

21. artikulua. Lanaren errenten gaineko atxikipena egiteko betebeharrak, egoitza aldatzen denean.

1. Besteren konturako langileek, zerga honen zergadunak izan ez arren beren enplegatzaileak atzerriara aldatuko dituelako zergadun bihurtuko badira, zirkunstantzia horren berri eman diezaioke Zerga Administrazioari.

2. Berri-emate horretan honako datu hauek jasoko dira: langilea nahiz lanaren etekinak ordaintzen dituen identifikatzeko datuak, zer egunetan irtengo den langilea lurralde gipuzkoarretik kanpora, eta zer egunetan hasiko den atzerrian lanean. Zehaztu behar da, orobat, ea lan harreman horretan badagoen datu objektiborik pentsarazten duenik harreman horren ondorioz langilearen egoitza aldaketa gertatzen den urte naturalean edo, horretan ez bada, ondorengo urtean 183 egun baino gehiago egongo dela herrialde horretan lanean.

3. Behin komunikazioa eta dokumentazioa aztertutik, bidezkoa bada Zerga Administrazioak frogagiria luzatuko dio langileari, komunikazioa aurkeztu ondorengo hamar laneguneko gehieneko epean. Frogagirian zerga honen atxikipenak noizdanik aurrera egingo diren adieraziko da.

4. Zerga Administrazioak luzatutako dokumentuaren ale bat emango dio langileak lan etekinen ordaintzaileari, horrek han adierazitako datatik aurrera Ez-egoiliarren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaduntzat har dezan, atxikipenak egiteko.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arabeko atxikipenak egiteari dagokionez, egiaztagiri horiek gehienez ere bi urte naturaletan izango dituzte ondoreak, hau da, langilea atzerriara doan urtean eta ondorengoan, edo, bestela, atzerriara doan urtea konputatzerik ez badago, ondorengo lehen bi urteetan.

5. Prozedura hori bera erabili ahal izango da, baldin eta, lurralde gipuzkoarrean eskuratutako errentak kalkulatzeko zergaren foru arauaren 13. artikuluan dauden arauak aplikatuz, ikusten bada lurralde horretan ez dela atxikipenik egin behar. Horrelakoetan, langile horiek kontuan hartuko dira zergaren foru arauaren 31. artikuluko 5. apartatuan ezarritako betebeharrei dagokienez.

6. Egiaztagiria goian azaldutako prozeduraren bitartez eskuratuta ere, langileak bere zerga egoitza berria non dagoen frogatu beharko dio Zerga Administrazioari.

3. sekzioa. Errenta esleipenaren araubideko entitateak

22. artikulua. Ordainketa zatikatuak egiteko betebeharra.

Zergaren foru arauaren 38. artikuluko 1. apartatuan aipatutako zergadunek ordainketa zatikatuak egin beharko dituzte zerga honen likidazioaren kontura, Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorra duten zerga honen zergadunek egiten dituzten modu berean.

23. artikulua. Itzulketa, zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen onuragarriago bat alegatuz.

Zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat alegatzen bada, zergaren foru arauaren 38. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoaren arabera, erregelamendu honetako 20. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Xedapen gehigarri lehena. Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak mugaz gaindi merkaturatzea.

1. Atzerrian egoiliarren diren entitate merkaturatzaileek Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu behar dizkiote 2004ko uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko lehen xedapen gehigarrian ezarritako ziurtapenak eta zerrendak. Xedapen horretan arautzen da, hain zuzen, sozietate kudeatzaileek edo, bestela, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak araututako inbertsio sozietateek noiz erregistratu behar dituzten atzerrian egoiliartutako erakundeen izenean dauden kontu orokorretan haiek egindako akzioen edo partaidetzen mugaz gaindiko merkaturatze eragiketak; kasu honetan, hain zuzen: zergaren foru arauaren 13.2.k) artikuluko a) letran ezarritakoaren arabera, akzioen eta partaidetzen titulartasunaren ondoriozko errentak Gipuzkoako lurralde historikoan lortutzat jotzen direnean.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak aurkezpen prozedura, eredu eta epeak zehaztuko ditu.

2. Erakunde merkaturatzaileak ez baditu betetzen aurreko 1. apartatuan eta 2004ko uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko lehen xedapen gehigarriko 3. apartatuan aipatutako betebeharrak, erakunde kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak erantzukizuna izango du Zerga Administrazioaren aurrean ez-betetzearen ondorioz edo Gipuzkoako Foru Aldundiari eman beharreko informazioa ez ematearen ondorioz ordaindu gabe geratzen diren atxikipenak eta konturako ordainketak direla eta.

3. Erakunde merkaturatzaileak ez baditu betetzen aurreko 1. apartatuan eta 2004ko uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko lehen xedapen gehigarriko 3. apartatuan aipatutako betebeharrak, egoiliar ez diren inbertsiogileen nortasuna eta haien zerga egoitza zergaren foru arauan eta hori garatu duten arauetan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dira.

Bigarren xedapen gehigarria. Itzulketa eskaera, ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik.

1. Eskatu ahal izango da Europar Batasuneko estatu batean egoiliar den zergadun batek edo benetako informazio trukea duen Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean egoiliar den zergadun batek lortutako ondare irabaziari dagokionez ordaindutako zerga zorra osorik edo partzialki itzultzeko, hark Gipuzkoan izandako ohiko etxebizitzaren eskualdaketagatik, betiere xedapen honetan jarritako baldintzetan.

2. Lurralde espainiarreko egoiliarra ez den zergadunak eskaera bat aurkeztu beharko dio Zerga Administrazioari, ohiko etxebizitza erosi ondorengo hiru hilabeteko epean.

3. Zergadunak Gipuzkoako ohiko etxebizitzaren eskualdaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, eskaerarekin batera, bai eta ohiko etxebizitza berriaren ondorengo erosketa.

Zerga Administrazioak itzuliko dio zergadunari, hala badagokio, horrek ordaindutako soberakina, behar diren egiaztapenak egin ondoren.

4. Xedapen honetan jasotakoa aplikatzeko, kontuan hartuko da 2007ko martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuak onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 41. eta 41. bis artikuluetan jasotakoa.

Hirugarren xedapen gehigarria. Pentsio funtsak eta inbertsio kolektiboko erakundeek egoitza frogatzea salbuespen jakin batzuk aplikatzearen ondorioetarako.²

1. Zergaren foru arauak 14.1 artikuluko b) letran aurreikusten duen salbuespena aplikatzeari begira, egoitza xedapen gehigarri honetan ezarritako eran frogatu ahal izango da, errentak entitate hauetako batek lortzen dituenean:

a) Pentsio Planak eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginean, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsian, araututakoaren pareko pentsio funtsak, edo haien establezimendu iraunkorrak.

Pareko pentsio funtsatzat hartuko dira zergaren foru arauaren 14.1 artikuluko m) letran ezarritako baldintzak betetzen dituzten gizarte aurreikuspeneko erakundeak.

Edozein kasutan ere, pareko pentsio funtsatzat hartuko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 Zuzentarauak, enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruzkoak, arautzen dituen gizarte aurreikuspeneko erakundeak.

² Xedapen gehigarri hau abenduaren 30eko 56/2019 Foru Dekretuaren 2. artikuluko gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietate zergan kalkulatzeko 2020an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onesten ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2019/12/30ko GAO), eta 2019ko urriaren 20tik aurrerako ondorioak ditu.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauak, balore higigarrietan inbertitzen duten inbertsio kolektiboko entitate batzuen lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak koordinatzekoak, arautzen dituen inbertsio kolektiboko erakundeak.

c) Inbertsio kolektiboko erakunde alternatiboak, Administrazioak nahitaez baimendu, erregistratu eta gainbegiratzekoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/EB Zuzentarauak arautzen dituen inbertsio funts alternatiboen kudeatzaileek kudeatzen dituztenean (Inbertsio funts alternatiboen kudeatzaileei buruzko Zuzentzara, 2003/41/EE eta 2009/65/EE Zuzentarauak eta 1060/2009/EE eta 1095/2010/EB Erregelamenduak aldatzen dituen).

2. Xedapen gehigarri honen 1. apartatuan aipatutako entitateak ez badira hartzen errentak esleitzeko araubidean dauden entitatetzat, honela frogatuko da egoitza:

a) Pentsio funtsa ez bada ageri xedapen gehigarri honen 1. apartatuko a) letraren hirugarren paragrafoan aipatu diren artean, ordezkariak aitoren bat aurkeztu beharko du, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezartzen duen edukiarekin eta ereduarekin bat etorritik, eta bertan adierazi legez ezarrita dauden baldintzak betetzen direla. Aitorpenak urtebeteko balioa izango du, aurkezten denetik aurrera.

Pentsio funtsa xedapen gehigarri honen 1. apartatuko a) letraren hirugarren paragrafoan aurreikusitakoaren artean badago, entitatea ezarrita dagoen estatuko agintari eskudunek emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta ziurtagiri horretan, 2016/2341 Zuzentzaren babesean baimenduta edo erregistratuta dagoen enpleguko pentsio funtsa dela esateaz gainera, datu hauek adierazi beharko dira: entitatearen izen osoa, helbidea, zein estatutan dagoen ezarrita, eta baimentze data edo administrazio erregistroko zenbakia. Entitatea baimendu, erregistratu eta gainbegiratzea agintari eskudunaren eskumena izango da.

Edonola ere, xedapen gehigarri honen 1. apartatuko a) letran aipatzen diren pentsio funtsak ez dira hartuko errentak esleitzeko araubidean dauden entitatetzat.

b) Xedapen gehigarri honen 1.b) apartatuan jasotako inbertsio kolektiboko erakundeen kasuan, erakundearen jatorrizko estatu kidean eskudun den agintariaren ziurtagiria aurkeztuko da. Ziurtagiri horren edukia Batzordearen 2010eko uztailaren 1eko 584/2010 EB Erregelamenduaren II. eranskinean aurreikusitako OICVM ziurtagiri-eredurako aurreikusitako berbera izango da, hura egiteko arrazoiari dagokionean izan ezik (Erregelamendu horren bidez 2009/65/EE Zuzentzara aplikatzeko xedapenak ezartzen dira). Agintari eskuduna Zuzentzara horren 97. artikuluan jasotakoarekin bat izendatuko da.

c) Xedapen gehigarri honen 1.c) apartatuan aurreikusitako inbertsio kolektiboko erakundeen kasuan, hauetako bat aurkeztu beharko da egoitza frogatzeko:

1.a Erakundea ezarrita dagoen estatuan eskudun den agintariak luzatutako ziurtagiria, honako hauek adierazi behar dituen: erakundearen izen osoa, helbidea, ezarrita dagoen estatua, forma juridikoa, eta, edukiz gero, baimentze data edo administrazio erregistroko zenbakia. Orobat, ziurtagiriak adierazi behar du erakunde hori entitate kudeatzaile batek kudeatua dela, edo autokudeatzen dela, eta 2011/61/EB Zuzentzaren arabera baimenduta dagoela, entitate kudeatzailearen izena eta helbidea ere jartzeaz gainera. Entitatea baimendu, erregistratu eta gainbegiratzea agintari eskudunaren eskumena izango da.

2.a Erakundearen edo haren entitate kudeatzailearen ordezkariak aurkeztutako aitorpena, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onetsitako ereduari jarraitu behar diona. Aitorpen horretan, aurreko 1. zenbakian esandako informazioaz gain, entitate gordailuzainaren izen osoa eta helbidea ere adieraziko dira. Aitorpenak urtebeteko balioa izango du, aurkezten denetik aurrera.

Apartatu honetan aipatutako ziurtagiriek balio mugagabea izango dute, non eta kontsignatutako datuetan ez den aldaketaren bat gertatzen; kasu horretan, salbuespena aplikatzeaz arduratzen den entitateari zirkunstantzia horren berri eman beharko zaio, eta une horretatik aurrera ziurtagiria baliorik gabe geratuko da, eta beste bat luzatu beharko da.

3. Xedapen gehigarri honen 1. apartatuko b) eta c) letretan aipatutako entitateak, zergaren foru arauaren 14.1 artikuluko b) letran aurreikusitako salbuespena aplikagarri duten estatuetan ezarritakoak, errentak esleitzeko araubidean dauden entitatetzat hartzen direnean, salbuespena honela aplikatuko zaie haien kideei:

Errentak jasotzen dituen entitateak Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauak, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoak, I. eta II. eranskinean xedatutakoari jarraituz zehaztu ahal izango du non duten egoitza entitateko kideek.

Salbuespena aplikatuko da errentak lortu aurreko urteko abenduaren 31n salbuespen horretarako eskubidea zuten kideek entitatean duten partaidetza portzentajearen arabera.

Entitatea errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate bat dela frogatzeko, eta aurreko paragrafoan aipatzen den partaidetza portzentajea justifikatzeko, erakundearen edo haren entitate kudeatzailearen ordezkariak aitorpen bat aurkeztu beharko du, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezartzen duen edukiarekin eta ereduarekin bat etorritik.

Apartatu honetan adierazitako entitateek egoitza frogatzeko, aurreko apartatuko b) edo c) letretan ezarritako erantzukizunak izango dute, dagokionaren arabera.

4. Xedapen gehigarri honetan egoitza frogatzeko entitateentzat ezarri den erantzukizuna, xedapen gehigarri honen 1. apartatuan aipatutako errenta salbuespena dagokienez, aplikagarria izango da atxikitzen behartutako pertsona edo entitateek salbuespena gauzatzeko, edo, hala badagokio, salbuespenak Zerga Administrazioaren aurrean ondorioak izateko, edozein dela ere errenta horiek direla eta aplikagarri diren prozeduren aginduetan, atxikipenen urteko laburpenetan eta aitorpen informatiboetan xedatutakoa.

Laugarren xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak.³

Erregelamendu honen ondorioetarako, izatezko bikoteei egiten zaizkien erreferentziak zergaren foru arauaren hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera interpretatuko dira.

³ Xedapen hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak onartzen duen erregelamenduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- **56/2019 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietate zergan kalkulatzeko 2020an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onesten dituen (BOG 2019-12-30).**
 - 2019ko urriaren 20tik aurrerako ondorioekin, ber 2. artikuluko hirugarren xedapen gehigarri bat sartu du.
- **55/2024 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzeko (2024/12/5ko GAO).**

Bere 3. artikuluko aldaketa hauek onartzen ditu:

- 9.3 artikuluko a) letra aldatzen du.
- Laugarren xedapen gehigarri bat gehitzen du.